



★ Euskara Internet sarean

Euskarak badu bere lekua Interneten. Webgune askok euskaraz eskaintzen dituzte beren edukiak eta klik batez informazio mordoa lor dezakegu kirolaz, musikaz edo nahi dugun gaiaz.

Horrezaz gain, ondo pasatzeko hainbat tresna daude erabilgarri euskaldunontzat: online jolasak, lagunekin hitz egiteko txatak,...

Hizkuntza txikia eta gutxitua izanik, pentsa zitekeen baino osasuntsuago dago euskara sarean. Bejondeigula!

1 DEKLINABIDE-KASUAK. Hauetako zein galderari erantzuten diote nabarmendutako hitzek?

Norekin?

Norentzat?

Zerez?

Zertaz?

- Hainbat tresna daude erabilgarri euskaldunontzat sarean: lagunekin hitz egiteko txatak, online jolasak,...
- Klik batez informazio mordoa lor dezakegu kirolaz, musikaz edo nahi dugun gaiaz.

2 NORENTZAT KASUA. Erantzun galderei parentesi arteko hitzei, -(r)entzat/-arentzat/-entzat deklinabide-markak erantsiz.

- Norentzat dakarzu tarta hori? (ikaskideak)
- Norentzat egingo duzue biharko barbakoa? (zenbait senide)
- Norentzat eman zizkizun goraintziak Jonek? (izeba)
- Norentzat idatzi dute olerki polit hori? (zuek)
- Zenbat jenderentzat da logela hori? (hamar lagun)

3 NOREKIN KASUA. Erantsi -(r)ekin/-arekin/-ekin deklinabide-markak esaldietako hutsuneetan.

- Ume txikiak ederki pasatu dute Puski eta Txurruksi pailazo_____.
- Bihar hondartzara joango naiz hainbat lagun_____. Bazatoz zu ere?
- Ingelesko irakasle_____ abesti politak kantatu ohi ditugu.
- Zenbat ikaskide_____ joango zarete txangoan?
- Ane bere aurasco_____ ikusi dut herriko plazan.

4 ZEREZ ETA ZERTAZ KASUAK. Egin galderak esaldi hauei.

- Bizikletaz joan ohi naiz eskolara.
- Aditu hark astronomiaz jardun zuen atzo.
- Kartoz egingo dugu eskulan hori.
- Oinez etorri al zara amonaren baserritik?
- Gure etxean ogia ez da aitzoz moztzen.
- Aimarrek ur-kirolez asko ulertzen du.

JAKIZU

- Norentzat, Norekin, Zerez eta beste zenbait deklinabide-kasuri (Nora, Nondik) -ko marka erantsi ahal diegu izenlagunak sortzeko. Adibidez:
 - Norentzat + -ko:
 - Zuretzako oparia.
 - Nora + -ko:
 - Donostiako tren.
 - Norekin + -ko:
 - Zurekiko konfiantza.